

Ametsen ezinegonak Katakraken

Joseba Barriola

Ekainaren 25ean egon nintzen Katakraken. ‘Euskara, naziogintza eta estatugintza’ gogoetarako gai jarrita, 150 lagun inguru elkartu ginen egun osoko saio ederrean, Jakin-UEU-Katakra hiruakoren ekimenari men eginez. Oso ondo.

Lorea Agirrek egin zuen aurkezpenean aipatu zuen unibertitate irakasle batek esan ziona: «‘Euskara eta estatugintza’? Baina nor joango da! Gaia ‘trastornos del sueño’ izango balitz, agian joango litzateke jendea...!». Eta esan behar, irakasle despistatu horrek bete-betean asmatu zuela. Izan ere, euskararen eta Euskal Herriaren inguruan izan ditugun ametsen ezinegonak izan zen mahai gainean jarri zena. Bai iraganekoak (Modernitatean nazioa osatzeko ametsa! Baina Modernitatea ez al dago pipia jota? Eta estatu-nazio modernoak, geure gainean daudenak, horiek ezin dute gure ereduak izan! Orduan, zer Modernitate? Ez al daude asko?) eta bai gaurkoak (nolako estatua, nolatan lortu, baina estatua bai ala ez, edo estatugintza eta zer da hori, eta ezagutu dugun autonomia mugatu horren ondorio perbertsoak? Eta boterearen arriskuak? Eta esentzialistak eta eskluinteak al gara (beraiek gehiago!)? Edo subalternoak gara (eta horregatik tristura?, edo borroka grina?) eta subalternoak gara edo gaude?, edota gure nortasuna baieztatzeko subalternitatea behar dugu azpimarratu?, biktimak al gara? Zer da hori?...). Euskararekin hitzartutako edozeinek izan ditu modu horretako edo bestelako amets gaiztoen ezinegonak. Katakra amets horiek azaleratu ziren, gogoeta gai bihurtu ziren, eta, esateko modu bat da, Katakra terapia saio itzela bizi izan genuen. Ziur nago osasuntsuago atera ginela han egon ginenok.

Hemen, bost puntutan, entzun eta ikusitakoak sorrarazi zidan gogoetatxoaren laburpentxoak eskaini nahi dut.

1. 1987an argitaratu zen Txepetxek *Un futuro para nuestro pasado* liburuan esaldi batek amets-ezinegon errekurentea sorrarazi zidan: «LO EUSKALDUN AÚN NO HA ALCANZADO UNA FORMULACIÓN POLÍTICA INDEPENDIENTE. **Construirla es la llave maestra de la salida a la situación**» (272. or.; letra larri eta lodiak horrela daude testuan). Katakra ikusi nuen oraindik horri bueltaka gabiltzala, formulazioaren bila: esperientzia praktikoen bidez eta horietatik irekitzen diren posible berrietara geure buruak irekiz. Ari gara praktikatzen eta ikasten, uste dut, euskara badela ere etorkinekiko jarrera duin eta justua elikatzeko baliagarria; feminismoaren esperientzia historikoa aberasteko tresna; langileen aldarrikapenarako eta beraien antolakuntzarako hizkuntza (grebak, etxekaleratzeak, gutun soziala, sindikatutan duen presentzia...); munduko desarmonia linguistikoan, gure orain arteko euskararen berreskurapen esperientzia badela erreferente bat; euskararen etorkizuna ez dagoela munduko hizkuntza guztien (baita ingelesaren, frantsesaren eta gaztelararen) eta giza bizitza osoaren etorkizunetik kanpo. Gure batailoi txiki hau badela munduko subordinatu, zanpatu, erasotu, esplotatu guztien tsunamiaren parte.

2. «Ura bere bidean doa». Egia da bi sistema hegemoniko oso indartsuen pean gabiltzala: merkatu kapitalistaren eta horren morroi diren estatu inperialista eta terroristen pean. Eta asimilazioa ez ezik, anikilazioa ere erabiltzen dutela erruz. Eta glotofagikoak direla... Baina eduki beharko genuke kontuan bi gauza, gutxienez: duela ez asko latina zen Europako hizkuntzarik boteretsuena, Erromatar Inperio erraldoiaren hizkuntza, baina ia osorik desagertu da; eta orduko hizkuntza bazterrekoak (euskara barne) bizi gara. Bestalde, ez gara gu hondamen baten emaitza soilik, hondamen eta erresistentzia baten emaitza baizik, eta batez ere gu geure ekintzaren emaitza ere bagara. Giltzarria ez da zenbateraino eraso diguten, zenbateraino umiliatu eta sufriarazi diguten... Giltzarria da horren aurrean guk geuk orain hartzen dugun jarrera. Giltzarria da 'Gure Esku Dago' predikazio izatetik jarrera praktiko izatera pasatzen dugun.

Egia da iraungitze data dugula, ez soilik euskaldunek, gazteleradunek, frantseseradunek, ingeleseradunek, eta gizadiaren bizitzak berak iraungitze data du... ez badugu 'gure esku' hartzen etorkizunaren eraikuntza. Zorionez, gaur egun, *eppur si muove*. Eta nahi nuke nik gaur egungo euskaldunen nortasuna eta definizioa bizitzaren (euskararen eta bizitza duinaren) erakarleak izatea. Gure nortasun etnikoa, linguistikoa, nazionala ez da eman zaigun altxorra, herentzian egokitu zaigun altxorrarekin eraikitzen dugunean irabazten dugun nortasuna baizik.

Zailtasunaren ezagutza beharrezkoa da, baina beste gauza bat dira ezintasunean oinarritzen diren ametsak eta ondoezak. Ezintasunaren pentsamenduak ezintasuna sorrarazten du.

3. «Bizi gara». Beldurrak ez du paralisia sortzen halabeharrez. Beldurrak aktibatu gaitzke. Baina beldurraren diskurtsoa ez dator bat euskararen hautua egin dugunon esperientzia pertsonalarekin. Gutako bakoitzaren euskalduntzea gozotasunez betetako esperientzia da. Barne satisfakzio sakona, lagun minak egiteko okasioa, bizipen kolektibo hunkigarriak... horiek daude geure esperientzia pertsonalean. Eta ez gara sandios batzuk.

Eta egia da diru kantitate asko gastatu dela, eta kalitate eskaseko gauzak egin direla (edo ondorio perbertsoak erakarri dituela diru horrek). Eta euskararen ezagutzari begiratzen zaiola, motibazioa ahazturik edota erabilera ezinezkotzat harturik. Eta boluntarismo askorekin erantzuten zaiola. Eta kosta zaigula esperimintatzea edozer gauza egiten dugularik baduela horrek eragina motibazioan, ezagutzan eta erabileran, kolpe batez hiruretan. Eta batzuetan euskara gutxiegi erabiltzea desegokia den bezala, beste batzuetan gehiegi erabiltzea ere desegokia izan daitekeela. Eta egia da ditugun potentzialitateak ez ditugula erabiltzen (adibidez, kontu kontari aritzeko apartak diren aiton-amona asko ez dira inoiz gonbidatuak izaten D ereduko eskoletara 'ahozkotasun' garrantzitsu hori lantzeraz). Baina horiek dira bete beharreko hutsuneak, besterik ez. Horiek ez dira diskurtso baten oinarriak. Euskararen bizitasunaren diskurtso batek barnean hartzen ditu horiek, eginkizunak bezala. Eginkizuna ez da norma bat. Eginkizuna da zerbait egiteko ados dagoen jendeak, motibazioa duen jendeak, erabaki duela egitea. Ez da inori esatea zer egin behar duen. Geure esku hartzen duguna baizik. Txepetxen terminologian: 0+ izatea ez al da aski? Segun. Donostiako alkate izan nahi duen batentzako ez da aski. Baina 87 urteko Valladolideko Clararentzako, bere gaztelera autentikoan bilobari esplikatzea zenbat balio duen euskara ikasteak, agian hori aski da amona horrentzat. Eta motibaziorik gabe pertsona bati euskara ezagutzea agintzea... alferrikakoa da.

Beldur aktibatzailearen diskurtsoaren laguntzailea izaten da askotan (aipatu dugun 'normatibismoarekin' batera) pazientziarik eza. Ikastolan gertatzen da patioan ikasleek erdaraz hitz egiten dutela. Ez ote duten ikasiko beldurrez, gaztelera lerratuko diren

beldurrez... esan izan zaie halakoetan: «Euskaraz!». Eta euskaraz jarraitu dute... irakasleak buelta eman arte. Esan diegu zer egin behar duten, esan diegu gaztelera zerbait txarra dela, esan diegu... lapurtu diegu beren 'aukera' eta 'hautu' txiki bat egiteko okasioa. Jolasteko gozamina gazteleraz bizi badute, ezin zaie erantzun irakaslearen beldurrarekin edo inpazientziarekin. Erantzutekotan, euskaraz bizi izandako jolas zoragarri batekin erantzun behar zaie. Jolasaren aurrean, normatibak edo inpazientziak ez dute zereginik. Azken horiek jolasa zapuztu dute.

Gauza orokorragoetara joz. Euskal Herriko heldu erdaldunen euskalduntze prozesua motibaziotik hasten da. Euskal Herriko heldu guztiak 0+ izatea aldaketa izugarria da. Horrek esan nahi du hizkuntza guztiak berdin baloratzen direla, eta, gainera, hemen bizi garenez, badugula euskararekiko erantzukizun berezia (zeren euskararekiko motibazioak ez du deus ikustekorik gaztelarekiko edo frantsesarekiko mespretxuarekin). Eta aldaketa horren atarian gaude. Bestela ezin da esplikatuz D ereduaren garapena (baita, eta bereziki ospagarria, Nafarroan ere). Noski, horretarako erdarak erabili behar dira, baina horretarako erabiltzen diren erdarak ez dira Konstituzio Espainolaren edo Frantziarraren gaztelera edo frantsesera. Guk erabil dezakegun erdara izango da euskararen estimua lantzen duen erdara. Motibazioaren planoan betez doan heinean, ezagutza joango da osatuz. Ezagutzaren planoak bere berezitasunak ditu, ez naiz hemen azaltzen jarriko. Eta hortik, motibazio positiboa ezagutzara pasatu denean, dena dago euskara erabiltzearen alde. Baina prozesu hori guztia ez da normatiboa, aginduz betea, legez ezarria, baizik eta motibazioz elikatua, hau da, norberaren erabaki propioz elikatua. Eta prozesuak bere erritmo propio pertsonalak eta sozialak, bere denborak, eskatzen ditu.

Eta horretara sartuta. Gaur egun badugu, aparte utzita elebitasun pertsonalak –orekatuak eta desorekatuak, eta abar– badugu elebitasun soziala, oro har guztiz desorekatua. Horren erantzuna ez da elebakartasun soziala. Horren erantzuna da elebitasun sozial orekatua. Zer da hori? Labur esanda, edonork izango du egoera horretan nahi duen hizkuntza erabiltzeko aukera, mintzakideak ere bi edo hiru hizkuntzaren jabe izango direlako. Elebitasun sozial orekatuak eskatzen du elebitasun indibidual orokortua. Baina elebitasun sozial orekatua prozesuaren fase ezinbestekotzat ikusten dut Euskal Herri osoari begira. Orduan, jendeak, denok euskaldunak (AB/BA/A/B...), erabakiko du erabileran gizarte eta lurralde elebakarra izan nahi duen edo ez.

Hitz batez, ez dut izan nahi prozesu honetan inplikatuak edo aldenduak dauden pertsona eta elkarten epailea. Ezagutu behar ditugu hutsuneak, horiek detektatu ondoren motibatuen artean sormen-gune bihurtzeko. Eskolan genuen hutsune itzel bat Francoren diktaduran. Hutsunea detektatu eta motibazioz hutsune hori betetzen hasi zen, eta nola? Ikastolen sorrerarekin eta eskola horien mugimendu pedagogiko miragarri batekin!

4. Estatugintza eta euskaldungintza. Adibide bat. Zer ziren ikastolak Franco garaian? Euskalgintza. Dударik ez. Eskola euskaraz. Baina ez hori bakarrik. Estatugintza ere baziren, estatuari zegokion funtzio bat –'desobedientzia zibil eta baketsua' inspektoreen kontra eta Elizaren tapaderarekin...– geure esku hartu genuelako. Hori bakarrik? Ez. Ikastola herrigintza ere bazen. Ikasbide Ikastola izan zen Amara auzoko festaren piztailea (Txabol sotoa deitzen genion). Hori bakarrik? Ez. Ikastolaren mugimendu pedagogikoa abian jarri zen, eta Gordailu zela-eta Kataluniako Rosa Sensatekin eta orduko munduko abangoardia pedagogikoarekin loturak zabaldu ziren: Montessori, Freinet, Summerhill... Hori bakarrik? Ez. Ikastolen premiei erantzuteko mundu bat jarri zen abian (idazleak, liburu egileak, itzultzaileak, abeslariak,

antzerkilariak, gramatikariak, ipuin egileak, marrazki egileak, matematikariak...), Euskal Nazioaren mundua.

5. Euskal estatua. 'Estatu' hitza aipatu eta burura etortzen zaiguna desesperagarria da. Espainiako eta Frantziako estatu-nazioak. Irlandako estatua eta bertako hizkuntzaren agonia. Israelgo estatu arrazista eta hebraieraren 'berpizkundera' palestinarrak txikituz. Sobiet Batasunaren inplasioa eta nazioen bilakaera. Kanadako estatua bera eta bertako herri indigenen marjinazio absolutua. Ingelesaren nagusigoa eta hizkuntzaren degenerazioa. Bale. Esperientzia horiek interesgarriak dira zer ez dugun nahi garbi ikusteko.

Euskal estatua 'erabakitzeko eskubidearen' emaitza izango da edo ez da izango. Guk erabaki behar dugu zer estatu mota nahi dugun. Nik ez dut egin nahi Espainiako estatuaren modukoa, baina euskaraz. Nik ez dut Europako neoliberalismo kapitalista eraiki nahi, baina euskaraz... Eta abar... Eta hizkuntzei dagokienez, ez diot tortila espainiarrari edo frantziarrari buelta eman nahi. Ez dut tortilarik nahi. Nik nahi dudana da mami goxoa denontzat. Baina mami goxo hori, nahi dugun estatu mota, estatugintza prozesuko urrats bakoitzean ari gara lantzen edo desegiten.

Hau da, ez du axola nor den gutxiengoa: euskaldunak, gazteleradunak, frantseseradunak. Inor ez da minorizatua izango. Ez da estatua erabiliko inor minorizatzeko. Horretarako, edozein hizkuntzaren 'pribilegioak' kanpora! Eta ahulen dagoenari, hala behar eta eskatzen badu, laguntza bereziak. Denbora pixka bat badugu gauzak gehiago zehazteko. Bitartean estatugintzan gabiltza, eta hori aldi berean da herrigintza –justizia sozialaren eraikitzailea, berdintasunaren osatzailea, lurrarekiko begirunearen zaintzailea–, euskalgintza eta nazioagintza.